



*Ebazpena, 2021eko azaroaren 22koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketa atzeratzen duena (zuzendari-kargua 2022ko ekainaren 30ean hutsik geratuko den ikastetxeetakoa), eta egoera bakoitzean egin beharrekoa arautzen duena.*

XXI. mendeko eskola-zuzendaritzak eskumen batzuk eta lidergo-estilo berriak behar ditu, zeinek gainditzen baitituzte indarrean dagoen araudian jasotako funtzioak, zuzendaritza-taldean rola funtsezko elementua baita hezkuntza-kalitateko. Horregatik, hezkuntza-lidergoko rol berriak sustatu ahal izateko araudi berriak behar dira, euskal hezkuntza-sistemak dituen erronkei aurre egiteko. Testuinguru horretan, beharrezkoa da zuzendaritza-taldeak proiektu komunitario eta kolektibo baten lider bihurtzea, ikaskuntzen kalitatea eta etengabeko hobekuntza sustatzeko.

Horregatik, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako eskola-zuzendaritzaren gaian sakontzea, dauden erronkak identifikatu ahal izateko eta erronka horiei heltzen dieten jarduerak gauzatzeko, bai eta hezkuntza publikoa hobetzeko palanka gisa jardungo duen kalitatezko eskola-zuzendaritza baterantz egitea ahalbidetuko diguten jarduerak ezartzeko ere.

Testuinguru honetan, gaur egun Hezkuntza Saila estrategia berri bat garatzen ari da EAEko ikastetxe publikoen hezkuntza-lidergorako.

Era berean, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa zenbait aldaketa egin ditu ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatzeko prozesua erregulatzen duen oinarritzko araudian. Arau-aldaketa horien aurrean, eta lehen aipatutako hezkuntza-lidergorako estrategia berria erreferentziazat hartuta, Hezkuntza Saila dekretu berri bat izapidetzen ari da gaur egun, EAEko ikastetxe publikoetako zuzendarien eta zuzendaritza-taldean prestakuntza, ebaluazioa eta aintzatespena arautzeko.

Otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuan ezarritakoaren arabera (22/2009 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko prozesuari eta kide bakarreko gainerako gobernu-organoak izendatu eta kargugabetzeari buruzkoa), Hezkuntzako sailburuari dagokio ikasturte honen bukaeran zuzendaritza hutsik izango duten ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko prozesua deitzea.

2022ko ekainaren 30ean zuzendaritza-talde kopuru esanguratsu baten agintaldia amaituko da, baina oraindik ez da onartu EAEko ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldean prestakuntza, ebaluazioa eta aintzatespena eta zuzendaritza-funtziorako sarbidea arautuko duen dekretu berria.

Hala ere, zuzendaritza-taldean egonkortasuna funtsezkoa da ikastetxeen funtzionamendu egokirako eta hezkuntza-komunitatearen beharrei eta itxaropenei ematen zaien erantzunaren kalitateko.

Egoera honetan, atzeratu beharra dago 2022ko ekainaren 30ean zuzendaritza hutsik izango duten ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak hautatzeko merezimendu-lehiaketa.



Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

### **1. artikulua.– Aplikazio-eremua.**

Ebazpen hau aplikatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publiko guztietan, Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetan izan ezik.

### **2. artikulua.- Ikasturte honetan 4. edo 12. urtea zuzendaritza-proiektuarekin amaitzen duten zuzendarien agintaldia lau urterako berritzea.**

1.- 2022ko ekainaren 30ean zuzendaritza-proiektuaren 4. edo 12. urtea amaitzen duten eta proiektua beste aldi baterako berritzeko eskatzen duten zuzendariak beren ikastetxeetako zuzendari izendatuko ditu Hezkuntzako dagokion lurralde-ordezkariek 2022ko uztailaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitarteko aldirako, baldin eta beren agintaldiaren balorazio positiboa lortzen badute.

2.- Artikulu honetako aurreko puntuan aipatzen diren zuzendariak, 2021eko abenduaren 23a baino lehen, agintaldia berritzeko eskaera egin beharko diote dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariei, ebazpen honen I. eranskinean dauden ereduari eta prozedurari jarraituz.

3.- Agintaldia berritzea eskatzen duten zuzendariak 2022ko apirilaren 10a baino lehen bidali beharko diote erreferentziako ikuskariari, *Hezigune* plataformaren bidez, beren zuzendaritza-proiektuaren eguneraketa bat. Eguneratze horrek garatu den zuzendaritza-proiektuari buruzko memoria bat izango du, bai eta hobekuntza-proposamenak eta hurrengo agintaldirako helburu berrien planteamendua ere.

4.- Zuzendari horiek, aurretik ikastetxeko klaustroari eta ordezkaritza-organo gorenari jakinarazita, ikastetxeko kide bakarreko gainerako gobernu-organoak izendatzeko proposamena aurkeztuko diote dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkariei, 2022ko ekainaren 15a baino lehen.

5.- Hezkuntzako lurralde-ordezkariek zuzendaria eta zuzendaritza-taldeko gainerako kideak izendatuko ditu. Izendapen guztiak 2022ko uztailaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitarteko eperako izango dira.

### **3. artikulua.- 2022-2023 ikasterterako luzatzea ikasturte honetan zuzendaritza-proiektuaren 8. urtea amaitzen duten zuzendarien eta 4. edo 12. urtea amaitzen duten eta beren agintaldia berritzen ez duten zuzendarien agintaldia.**

1.- Arau orokor gisa, 2022-2023 ikasterterako ez da ofizioz luzatuko artikulu honetan aurreikusitako zuzendarien agintaldia.

2.- Artikulu honetan aipatzen diren zuzendarietako batek agintaldia beste urtebete luzatu nahi badu, 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen idatziz aurkeztu beharko dio eskaera Hezkuntzako lurralde-ordezkariei, ebazpen honen II. eranskinean jasotako ereduari eta prozedurari jarraituz.

3.- Zuzendari horiek, aurretik ikastetxeko klaustroari eta ordezkaritza-organo gorenari jakinarazita, ikastetxeko kide bakarreko gainerako gobernu-organoak izendatzeko proposamena aurkeztuko diote dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkariei, 2022ko ekainaren 15a baino lehen.



4.- Hezkuntzako lurralde-ordezkariek zuzendaria eta zuzendaritza-taldeko gainerako kideak izendatuko ditu. Izendapen guztiak 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitarteko eperako izango dira.

**4. artikulua.- 2022-2023 ikasturterako luzatzea 2021-2022 ikasturtean ezohiko izaeraz izendatutako zuzendarien agintaldia.**

1.- Arau orokor gisa, ikastetxeetako zuzendarien agintaldia 2023ko ekainaren 30era arte luzatuko da, haien agintaldia 2022ko ekainaren 30ean amaitzen bada eta 2. eta 3. artikuluetan zehaztutako egoeretan ez badaude. Hezkuntzako lurralde-ordezkariek dagozkion izendapenak egingo ditu, ikuskaritza-txostena ikusi ondoren, non jasoko baitira, besteak beste, zuzendaritza-taldearen egoera eta bertan egindako esku-hartzea.

2.- Aurreko zenbakian aipaturiko zuzendariren batek uko egin nahi badio bere agintaldia luzatzeari, bere ukoa idatziz aurkeztu beharko dio Hezkuntzako lurralde-ordezkariori, 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen. Bertan, 2022ko ekainaren 30etik aurrera kargua bete ezin izateko arrazoiak adierazi beharko ditu.

3.- Hezkuntzako lurralde-ordezkariek, interesdunak adierazitako arrazoiak ikusita, ikuskaritza-txostena ikusi ondoren, uko-egite hori onetsi ala ez erabakiko du, 2022ko otsailaren 28a baino lehen. Erabakia interesdunari eta dagokion ikastetxeari jakinaraziko zaie.

4.- Beren agintaldia 2022-2023 ikasturtera luzatzen duten zuzendariak, aurretik ikastetxeko klaustroari eta ordezkari-organoren gorenari jakinarazita, ikastetxeko kide bakarreko gainerako gobernu-organismoak izendatzeko proposamena aurkeztuko diote dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkariori, 2022ko ekainaren 15a baino lehen.

5.- Hezkuntzako lurralde-ordezkariek zuzendaria eta zuzendaritza-taldeko gainerako kideak izendatuko ditu. Izendapen guztiak 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitarteko eperako izango dira.

**5. artikulua.- Ikastetxeko zuzendariak bere karguan ez jarraitzea.**

1.- Ikastetxe bateko zuzendariak 2022ko ekainaren 30etik aurrera bere karguan jarraitzen ez badu, zuzendaritza-taldeko kide guztiek beren kargua utziko dute egun horretatik aurrera.

2.- Kasu horietan, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek, Hezkuntzako Ikuskaritzaren txostena ikusirik, eta ikastetxeko irakasleen-klaustroaren eta ordezkari-organoren gorenaren iritzia entzun ondoren, ikastetxeko zuzendari izateko egokiena iruditzen zaion pertsona izendatuko du, 2022ko ekainaren 15a baino lehen, 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitarteko eperako.

3.- Nahitaezko ikuskaritza-txostenak, besteak beste, zuzendaritzaren egoera eta ikastetxean egindako esku-hartzea jasoko ditu, zuzendariari hezkuntza-lidergo egonkorra lortzen laguntzeko.

4.- Hezkuntzako lurralde-ordezkariek 2022-2023 ikasturtean ikastetxeko zuzendaria izango den pertsona izendatu ondoren, pertsona horrek egin beharko du, 2022ko ekainaren 25a baino lehen eta ikastetxeko klaustroari eta ordezkari-organoren gorenari jakinarazi ondoren, zuzendaritza-taldeko gainerako kideak izendatzeko proposamena.

5.- Hezkuntzako lurralde-ordezkariek zuzendaria eta zuzendaritza-taldeko gainerako kideak izendatuko ditu. Izendapen guztiak 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitarteko eperako izango dira.



## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehenengoa. Ordainsari-osagarriaren zati bat finkatzea.

Urriaren 16ko 204/2012 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betez (204/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendari-karguaren berariazko ordainsari-osagarriaren zati bat finkatzen duena), 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitarteko eperako zuzendaritzan jarduteko izendatzen dituzten pertsonen % 2an handituko zaie dagokien aldirako ezarrita dagoen berariazko ordainsari-osagarriaren finkapenaren zenbatekoa. Zenbatekoaren handitze hori zuzendariak hautatzeko hurrengo deialdian parte hartzen badute eta izendatuak badira egingo da, eta beren zuzendari-agintaldiaren datozen lau ikasturteen balorazioa ona bada.

### Bigarrena. - Zuzendaritza egonkorreko ordu-kredituaren jarraipena

1.- Zuzendariak 2018ko uztailaren 1ean hautatu edo berri zizuten ikastetxeek, izendatuak izan ziren lau urteko aldirian etengabe bete badute zuzendaritza-funtzioa, eta 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitarteko agintaldia luzatzea eskatu badute, 2022-2023 ikasturtean zehar jarraituko dute lau urterako aukeratutako zuzendaritzen ordu-kreditua izaten<sup>1</sup>.

2.- 2018ko uztailaren 1ean lau ikasturteko agintaldi baterako hautatu edo berri ziren zuzendariak dituzten ikastetxeek, izendatu zizuten lau urteko aldi horretan etengabe bete badute zuzendaritza-funtzioa, eta ez badute eskatu agintaldia luzatzea, baina ikastetxeak zuzendaritza-talde berri bat badu, aurrekoa ordezkatzeko prest dagoena, eta konpromiso sendoa duena zuzendariak hautatzeko hurrengo deialdian parte hartzeko eta zuzendaritza-funtzioei buruzko prestakuntza-programan parte hartzeko, 2022-2023 ikasturtean ordu-kreditu bat izaten jarraituko dute, hain zuzen ere lau urterako aukeratutako zuzendaritzak dituzten ikastetxeek duten bera<sup>1</sup>. Egoera hori jasota geratuko da Hezkuntzako lurralde-ordezkariak izendatu aurretik Hezkuntzako Ikuskaritzak egindako nahitaezko txostenean.

3.- 2021-2022 ikasturterako ezohiko izaeraz izendatutako zuzendariak dituzten ikastetxeek, zuzendariak hautatzeko hurrengo deialdian parte hartzeko eta zuzendaritza-eginkizuna betetzeko gaitasunei buruzko prestakuntza-programan parte hartzeko konpromiso irmoa aurkezten badute, lau urtetarako aukeratutako zuzendaritzak dituzten ikastetxeen dagokien ordu-kreditua izango dute 2022-2023 ikasturtean<sup>1</sup>. Egoera hori jasota geratuko da Hezkuntzako lurralde-ordezkariak izendatu aurretik Hezkuntzako Ikuskaritzak egindako nahitaezko txostenean.

---

<sup>1</sup>Uztailaren 6ko [185/2010 Dekretuaren](#) 24. artikulua 6. apartatua (dekretu haren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatekoak ez diren irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzeko hitzarmena onartzen da).



4.- 2021-2022 ikasterterako ohiz kanpo izendatuak izan diren zuzendariak dituzten ikastetxeek, agintaldiaren luzapenari uko egitea eskatu badute (zuzendaritza-talde berri bat izango dutelako aurrekoa ordezteko prest, konpromiso sendoa izango duena zuzendariak hautatzeko hurrengo deialdian parte hartzeko eta zuzendaritza-eginkizuna betetzeko gaitasunei buruzko prestakuntza-funtzioan parte hartzeko), 2022-2023 ikastertean zehar ordu-kreditua izango dute, hain zuzen ere zuzendaritza-taldea lau urterako hautatu duten ikastetxeek duten bera. Egoera hori jasota geratuko da Hezkuntzako lurralde-ordezkariek izendatu aurretik Hezkuntzako Ikuskaritzak egindako nahitaezko txostenean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 22a

  
  
HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Begoña Pedrosa Lobato  
Hezkuntza sailburuordea



## I. ERANSKINA

## Zuzendariaren izendapena berritzeko eskaera

## Funtzionarioaren datuak

Abizenak:

Izena:

NANA:

Kidegoa:

Ikastetxea:

Telefonoa:

Kodea:

Zuzendaria hautatzeko prozedurari buruzko 22/2009 Dekretuaren 19.1 artikulua aplikatuz (61/2012, 46/2014, 262/2017 eta 93/2018 Dekretuen bidez aldatua), eta Hezkuntzako sailburuordearen 2021eko azaroaren 22ko Ebazpenak ezarritako epearen barruan (2021eko abenduaren 23a) (ebazpen horren bidez, Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketa atzeratzen da -zuzendari-kargua 2022ko ekainaren 30ean hutsik geratuko den ikastetxeetakoa-, eta egoera bakoitzean egin beharrekoa arautzen da),

## Adierazten dut:

2018-2022 aldirako zuzendaria izateko hautatua eta izendatua izan naizela 22/2009 Dekretuan ezarritako prozeduraren bidez (61/2012, 46/2014, 262/2017 eta 93/2018 Dekretuek aldatua).

## Eskatzen dut:

Nire zuzendari-izendapena lau urtez berritzea, baldin eta gaur egun egiten ari naizen lanari buruzko balorazio positiboa jasotzen badut.

IZAPIDETZEKO PROZEDURA: Eskabide hau bete eta sinatu ondoren, *Hezigune* plataformara igo beharko da ("*Zuzendaritza taldea*" / "*Dokumentazioa ikuskaritzarekin*" / "4. edo 12. urteko proiektudun zuzendariak: agintaldia berritzea"), 2021eko abenduaren 23a baino lehen.

\_\_\_\_\_, \_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_ (a)

Eskatzailearen sinadura

\_\_\_\_\_ KO LURRALDE ORDEZKARI JAUNA/ANDREA



## II. ERANSKINA

*Zuzendariaren agintaldia urtebeteko eperako luzatzeko eskaera*

## Funtzionarioaren datuak

Abizenak:

Izena:

NANA:

Telefonoa:

Kidegoa:

Ikastetxea:

Kodea:

Hezkuntzako sailburuordearen 2021eko azaroaren 22ko Ebazpenaren 3. artikulua aplikatuz (ebazpen horren bidez, Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketa atzeratzen da -zuzendari-kargua 2022ko ekainaren 30ean hutsik geratuko den ikastetxeetako-, eta egoera bakoitzean egin beharrekoa arautzen da), honako hau

## Adierazten dut:

2018-2022 aldirako zuzendaria izateko hautatua eta izendatua izan naizela 22/2009 Dekretuan ezarritako prozeduraren bidez (61/2012, 46/2014, 262/2017 eta 93/2018 Dekretuek aldatua).

## Eskatzen dut:

Nire zuzendari-izendapena 2022-2023 ikasturterako luzatzea.

IZAPIDETZEKO PROZEDURA: Eskabide hau bete eta sinatu ondoren, *Hezigune* plataformara igo beharko da ("*Zuzendaritza-taldea*" / "*Ikuskatutako dokumentazioa*" / "4., 8. edo 12. urteko proiektudun zuzendariak: *agintaldia 2022-2023 luzatzeko eskaera*"), 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen.

\_\_\_\_\_, \_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_ (a)

Eskatzailearen sinadura

\_\_\_\_\_ KO LURRALDE ORDEZKARI JAUNA/ANDREA